betiko pertsonaiak 2

kontuz! 2

stuart little 3

bai haize azkarra! 5

6 kontxita beitia, ikastola sortzailea

7 lagun bila

8 gizonezkoen larruazala

AURKIBIDEA

1.mail

riketak

▶ GAUR EGUNGO ETA BETIKO PERTSONAIAK

Ale honetan, pertsonaia famatu batzuk aurkituko dituzu. Horiek eta Euskal Herrian ere famatuak diren beste hainbat ekarri ditugu hona eta zerrenda batean jarri. Nahasian aurkituko dituzu izenak eta lan egiten duten arloa. Saia zaitez elkarrekin lotzen. Zalantzarik izanez gero, jo zuzenketa-orrira.

PERTSONAIAK

Jean Piaget
Carmen Martín Gaite
George Clooney
Inazio Aldekoa
Ainhoa Arteta
José María Olazabal
Josune Bereziartu
Joseba Beloki
Izaskun Aranburu
Bernardo Atxaga
Edurne Pasaban
Eduardo Txillida
Joane Somarriba
Andrés Vilariño
Lorena Bernal
Martín Fiz
Karlos Argiñano

ARLOAK

1. Kirola
2. Musika
3. Literatura
4. Zinea/Telebista
5. Artea
6. Sukaldaritza
7. Zientzia

▶ KONTUZ!

Ale honetako testu batzuetan aholkuak eman dizkigute. Horietako batzuk idatzi dizkizugu, baina tartean gezurren bat edo beste sartuz. Esan zein diren egiazkoak eta zein ez.

1) Beltzaran segitzeko dagoen modurik onena azala ondo hidratatzea da
EGIA / GEZURRA

(2) Eguzkiak beztutakoek ere bi orduz behin igurtzi behar dute larrua kremaz
EGIA / GEZURRA

(3) Azala ez erretzeko onak dira azenarioa duten kremak
EGIA / GEZURRA

(4) Merkeagoa duzu haurrak eskola publikora bidaltzea
EGIA / GEZURRA

(5) Haurrei zuzendutako zerbitzuak, gaur egun, oso irtenbide egokia dira gurasoentzat
EGIA / GEZURRA

(6) Zerbait ikasten hasi aurretik , kontuan hartu informatikoak, soldadoreak eta eskulan ez-kualifikatua behar direla
EGIA / GEZURRA

(7) Babarrun onak jateko, zoaz San Adriango ostatura
EGIA / GEZURRA

(8) Aizkorriko San Adrianera joateko biderik luzeena Zegamatik irten eta mendatean gora Otzaurtera joatea da; argi gero!.
EGIA / GEZURRA

▶ STUART LITTLE

Ezagutzen al zenuen pertsonaia hau? Gure aldizkarian, zine-saile-an aurkituko dituzu datu gehiago, Begoña del Tesok emanak.

Hemen irakurriko duzuna, filmari buruzko fitxa teknikoa, artistikoa eta sinopsia da. Dena dela, hutsune batzuk gelditu zaizkigu. Saia zaitez betetzen. Gogoratzen ez badituzu, jo testura.

FITXA TEKNIKOA

Zuzendariak: _____(1)

eta Guillermo Navarro

Produktoreak: Douglas Wick eta Jason Clark

Gidoia: E.B. White, Douglas Wick, E.B. White eta

_____(2)

FITXA ARTISTIKOA

Aktoreak: _____(3), Hugh Laurie,

Jonathan Lipnicki, Michael J. Fox, Gene Wilder

SINOPSIA

E.B. Whiteren eleberrian du oinarri film honek eta Stuart Littleren istorio hunkigarria kontatzen du.

_____(4) jator hau familia arrunt batek hartu du bere etxean, bertako katuaren disgusturako. Stuart egoera berriari egokituz handituko da eta beti izango da garaile borroka guztietan. Filmeko efektu bereziak oso entretenigarriak dira eta ikusleak txundituta uzten dituzte. Bihotza hunkitzeko moduko filma duzu.

▶ BAI HAIZE ZAKARRA!

Tarteka gertatzen zaigu, haize-bolada batek nahastu egin dizkigu berriro ere gure paperak. Enpresa familiarra duen Alex Barbierrekin egin genuen elkarrizketa erabat nahaspilatu zaigu. Jar ezazu galdera bakoitza bere erantzunarekin.

HABE.- Enpresa familiarra da. Zenbat lankide zarete?

A. B. - Alderdi onak: beti jende ezagunaren artean zaude, eta zerbait egin behar baduzu, eta denbora librea behar baduzu, errazagoa da. Alderdi txarretik, eztabaidak etxetik lanera eta lanetik etxera doaz. Komeni da bereiztea zer den familia eta zer den lana. Hori da zailena. Oporrekin adibidez, ni bigarren semearen zain nago, arreba ere bai... hor oporren datak aukeratzeko orduan eztabaida txikiak sor daitezke... Edo anaiarekin eztabaidaren bat izaten badut igandeko bazkarian, gero astelehenean bulegoan zaila izango litzateke ondo eramatea.

H.- Zein da zure eginkizuna enpresa horren barruan, edo denok denetik jakin behar duzue?

A. B. - Oraingo ikuspuntutik hobeto ikusten da dena. Hobeto ulertzen ditut egunero sortzen diren arazo txikiak, eta eskarmentu horrekin hobeto ulertzen diet arazoren bat planteatzen didatenean, adibidez, Santik toldoren bat edo aulkiren bat hautsi duelako...

H.- Enpresa sortu zenetik izan al duzu orain duzun eginkizuna?

ALEX BARBIER. - Hogeita bost inguru, tartean familiako lau: aita, arreba. anaia gazteena eta ni neu, anaia zaharrena. Aitak sortu zuen enpresa 1991n. Beraz, datorren urtean 10 urte beteko ditu.

H.- Eta zein alderdi on eta zein txar ditu sendiaren enpresa batean lan egiteak?

A. B. - Denbora joan ahala, gero eta ardura gehiago hartu dut. Adibidez, hondartzen arduradun nagusia Angel da; lehen nik egiten

H.- Langile xume izateari utzi eta beste erantzukizun batzuk hartu dituzunean, zure izaera aldatu egin da, zorrotzago bihurtu zara...

A. B. - Gutxi gorabehera, baina beno... Anaiarik zaharrena naizenez, ardurarik gehien duena naiz. Gerentea aita da, baina nik ere betebehar berak ditut, dena kontrolatu: makinak nola dauden, langile berriak, lanak antolatu, udaletxeekin harremanak zaindu, Aldundiarekin... nuen lan hori, eta gero ardura gehiago hartu nituen eta bulegora pasa nintzen, papeleoa....

Zuzendu nahi baduzu, jo 25. orrialdera.

▶ KONTXITA BEITIA, IKASTOLA SORTZAILEA

Ikastolen sorreran aitzindari izan zen emakume baten bizitzaren zatitxo bat ekarri dugu hona. Irakur ezazu eta saia zaitez hutsuneak behar den bezala betetzen.

Elbira Zipitria _____**(1)** zen gerra ondorengo ikastolen mugimendua martxan jarri zuen protagonista nagusienetako bat. Berak _____**(2)** ireki zuen Kontxita Beitiak Pasaiako lehenengo ikastola bere etxean, eta ikastolak legalizatu ziren arte jarraitu zuen bertan klase partikularrak _____**(3)**. Ondoren, Donostiara ezkondu zenean, bera izan zen Zurriolako ikastolaren bultzagile nagusia.

Zuzendaritzan hainbat urte eman ondoren, magisteritza _____**(4)** gain beste zerbait ikasi nahi zuela erabaki zuen. Horregatik eman zuen bere izena Zorroagan Psikologia ikasteko lehen promozioan. Berrogei urte _____**(5)** orduan eta laugarren haurraren esperoan zegoen.

Geroztik, eta Errenteriako Beraunen hainbat _____**(6)** lan egin ondoren, Ategorrietan eta Zuhaizti ikastetxeeetan aritu da lanean, 2000. urte honetan jubilatu den arte.

(1)

a. egon
b. izan
c. eduki

(2)

a. bultzatuta
b. bultzaturiko
c. bultzatuz

(3)

a. emateko
b. ematen
c. ematea

(4)

a. ikasketez
b. ikasketak
c. ikasketetan

(5)

a. zituen
b. zegoen
c. izanik

(6)

a. urtetan
b. urtean
c. urteetan

▶ LAGUN BILA

Gure ale honetako interesgunean hezkuntzarekin lotutako hainbat puntu jorratu ditugu. Heziketarekin zerikusia duten esaldi batzuk irakurriko dituzu segidan, baina bitan banatu zaizkigu. Lehenengo zutabean daudenak irakurri eta lotu bigarren zutabean daudeneakin.

Gizon-emakumeek, irakasten dutenean...

... baina galdetzen ez duena betirako.

Txinar esaera.

Aholku on bat aprobetxatzeko...

... inork ezingo digula kendu.

B.B. King

Ikasteak duen gauzarik onena da...

... emateko baino gehiago jakin behar da.

John C. Colina

Irakasten duzunean...

... ikasten dute.

Séneca

Galdetzen duena bost minutuz da tontoa...

... irakas ezazu irakasten duzuna zalantzan jartzen.

José Ortega y Gasset

▶ GIZONEZKOEN LARRUAZALA

Oporretan lortutako azal beltzaranari nola eusti galdetu diogu Itziar Goya dermatologoari. Eta ba al dago alderik gizonen eta emakumeen larruazalen artean? Badirudi baietz. Guk, behintzat, hala irakurri dugu. Irakurri bada, zuk ere testua eta ikusiko duzu hitz batzuk trukatu egin ditugula, azpimarratuta aurkituko dituzu, eta jatorrizkoen ordez, beste batzuk jarri. Ea antzematen diezun!

GIZONEZKOEN LARRUAZALARI BURUZ JAKIN NAHI ZENUEN GUZTIA

Zergatik da ezberdina? Berezitasunak

Beharbada ez duzu jakingo **ileak** direla medio gizonezkoen larruazala emakumezkoena baino askoz ere **argalagoa** eta porotsuagoa dela (baita %15 gehiago ere).

Gainera, gizonezkoen larruazalak izerdi gehiago sortzen duela. Koipe-maila altuegia denean, azalari kosta egiten zaio arnasa hartzen eta infekzio, puntu beltz eta pinportak azal daitezke.

Zehazki, gizonezko **zaharrek** dute nekez kentzen den aknerako joerarik handiena.

Baina, gizonezkoen larruazalak badu **arazorik**: bere loditasuna dela-eta, ura mantentzeko aukera handiagoa du. Hidratazio honi esker beranduago azaltzen dira begizuloak gizonengan. Hori bai, azaltzen direnean, sakonagoak izaten dira.

Beste desberdintasun bat **ahotsa** da. Ileak gure aurpegiaren herena betetzen du (6.000tik 25.000ra ile ditu gizasemeak aurpegian eta egunean 0,4 mm hazitzen dira).

Ezin ahaztu eguneroko bizar-moztea dela gizonezkoaren larruak jasaten duen oparirik bortitzena. Bizarra moztean epidermiko hiru geruza ere mozten ditugu eta 24 ordu baino ez dauzkagu errekuperatzeko. **Dirua** galtzen duenean, azalak hidratazioa eta elastizitatea galtzen du, sentiberago bihurtuz eta itsusituz. Ordainetan, zapi hidratanteak eta lasaigarriak erabili behar dira.

GAUR EGUNGO ETA BETIKO PERTSONAIAK

JEAN PIAGET (7) pedagogoa
CARMEN MARTIN GAITE (3) idazlea
GEORGE CLOONEY (4) aktorea
INAZIO ALDEKOA (3) idazlea
AINHOA ARTETA (2) sopranoa
JOSE M. OLAZABAL (1) golf jokalaria
JOSUNE BEREZIARTU (1) eskalada deportiboa
JOSEBA BELOKI (1) txirrindularia
IZASKUN ARANBURU (1) piraguismoa
BERNARDO ATXAGA (3) idazlea
EDURNE PASABAN (1) mendizalea
EDUARDO TXILLIDA (5) eskultorea
JOANE SOMARRIBA (1) txirrindularia
MARTIN FIZ (1) korrikalaria
LORENA BERNAL (4) modeloa
KARLOS ARGIÑANO (6) sukaldaria

KONTUZ!

(1) EGIA, (2) EGIA, (3) GEZURRA, (4) EGIA,
(5) EGIA, (6) EGIA, (7) EGIA, (8) GEZURRA

STUART LITTLE

(1) Rob Minkoff
(2) Night Shyamalan
(3) Geena Davis
(4) Sagu

KONTXITA BEITIA, IKASTOLA SORTZAILEA

(1) b, (2) a, (3) b, (4) a, (5) , a, (6) a

LAGUN BILA

• Gizon-emakumeek, irakasten dutenean *ikasten dute*. (Séneca)
• Aholku on bat aprobetxatzeko *emateko baino gehiago jakin behar da*.
(John C. Colina)
• Ikasteak duen gauzarik onena da *inork ezingo digula kendu*. (B.B. King)
• Irakasten duzunean *irakas ezazu irakasten duzuna zalantzan jartzen*.
(José Ortega y Gasset)
• Galdetzen duena bost minutuz da tontoa, *baina galdetzen ez duena betirako*.
(Txinar esaera)

GIZONEZKOEN LARRUAZALA

ileak-hormonak
argalagoa-lodiagoa
izerdi-koipe
zaharrek-gazteek
arazorik-abantailarik
begizuloak-zimurrak
ahotsa-bizarra
oparirik-erasorik
Dirua-babesa
zapi-produktu